

BELTZARANTZE



160520



ARTIFIZIALA



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

**PERTSONA
HELBURU**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

BELTZARANTZE ARTIFIZIALA



Erradiazio ultramoreak ezinbestekoak dira D bitamina sintetizatzen, kaltzioa finkatzeko eta erloju biologikoa antolatzen. Hala ere, izpi hauek gehiegi eta arretarik gabe hartzeak **osasunerako** zenbait arrisku ekartzen du.

Azalean eta **begietan** eragin larria eduki dezakete. Erradiazio horiek denbora luzean eta sarritan jasotzeak hainbat kalte eragin ditzake: larruazalaren zahartze goiztiarra, alergien agerpena, azal-orbanak eta baita azaleko minbizia ere.

Halaber, azala oso zuria daukatentzat bereziki arriskutsuak izan daitezke. Ezin dituzte erabili belztu gabe erretzen diren pertsonak, intsolazioa daukatenek edo azaleko minbizia jasan dutenek. Familian azaleko minbiziaren aurrekariak dituzten pertsonak saihestu behar dute erradiazio hauen erabilpena.



Zure segurtasunagatik:

Izpi-ultramore artifizialeko esposizioa debekatuta dago 18 urtetik beherakoentzat eta ez da komenigarria haurdunentzat.

Beharrezkoa da babes betaurrekoak erabiltzea beltzarantze aparatuetan begi-lesioak saihesteko: kataratak edo korneako inflamazioa.



Kosmetikoek eta zenbait botikak (antibiotikoak, somniferoak, antidepresiboak, antiseptikoak...) erradiazioekiko sentikortasuna handitzen dute.

GOMENDIOAK



- Ziurtatu zentroak indarrean dagoen **araudia** betetzen duela.
- Beltzarantze saioa hasi baino lehen, ziurtatu azalaren **fototipoen** taulan zein den zurea.
- Sinatu baino lehen, irakurri zentroan emango dizuten **dokumentu informatiboa**.
- Jarrai itzazu iraupenari, **esposizioaren** intentsitateari eta lanpara eta pertsonaren arteko distantziari buruzko gomendioak.
- **Azala garbia** eraman, kosmetikorik gabe. Ez erabili eguzki iragazkirik.
- Ez ezazu hartu izpi ultramorerik **botikak** hartzen ari bazara. Zalantzarik izanez gero, zure medikuari kontsultatu.
- Erabili beti **babes egokiko betaurrekoak** jardun osoan.
- Ez jarri eguzkitan eta izpi ultramoredun beltzarantzeko aparatuan egun berean.
- Utzi gutxienez **48** ordu lehenengo bi jardunen artean.
- Kontsultatu medikuari erradiazioa jaso ostean anpoilak, zauriak edo gorriuneak agertzen bazaizkizu.

Beltzarantze zentroyen BETEBEHARRAK



- 1** Beltzarantzeko tresneriaren **azken azterketaren ziurtagiria** jendaurrean ikusgai izatea.
- 2** Instalazioak eta materialak, **garbiketa zein desinfektatze egoera egokian** mantentzea.
- 3** Beltzarantze aparatuk ikuskatzen duten **langile adituak** izatea (gutxienez pertsona bat).
- 4** Azaleko fototipo ezberdinak eta bakoitzari dagokion esposizio-denbora erakusten dituen **taula bat jendaurrean jartzea**.
- 5** **Ondorengo produktuak ez ematea:** beltzarantzea azkartzekoak, iragazle bezala aritzen direnak edo esposizio luzeagoak ahalbidetzen dituztenak.
- 6** Publikoari hurrengo **informazioa eskaini:**
 - › Izpi ultramoreek azaleko minbizia **ekar dezakete** eta begiak larriki kaltetu.
 - › **Ezinbestekoa** da babeseko betaurrekoak erabiltzea.
 - › Zenbait **botika eta kosmetikok** nahi ez diren erreakzioak eragin ditzakete.
 - › Debekatuta dago **18 urte baino gutxiagokoek** erabiltzea eta ez da komenigarria **haurdunentzat**.
- 7** Beltzarantze aparatua erabili baino lehen, **informazio-dokumentu** bat eman behar zaio erabiltzaileari. Bere onespena adierazteko, dokumentua irakurri eta sinatu beharko du.
- 8** Erabiltzaileen eskura egongo diren **fitxa pertsonalizatuak** egitea.

